



Testua: Aintzane Berasategi, www.wapoa.net guneko psikologoa eta Ainhoa Maiztegi, guneko sortzailea.

Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa: gizarteak kili-kolo daraman irakasgaia

Garai batean gurasoek seme-alabei gauero istorio bat kontatzeko astia zuten, otorduetan telebistarik ez zegoen, hizketaldi luze eta sakonetan jarduten zuten...

Egia da garai batean haurren galdera asko erantzunik gabe uzten zituztela gurasoek, ezjakintasunez, lotsaz edota beste hainbat arrazoi zirela bide.

Gaur egun, aldiz, gurasoek hainbat tresna dituzte haurren galderei erantzuteko: ikasketak, egunkariak, aldizkariak, Internet... baina, seme-alabekin egoteko denborarik ez.

Denok dakigun bezala komunikazioa ezinbestekoa da gizakion elkarbizitzarako, ezinbesteko eta aberasgarri. Komunikazio egokiaren bitartez informazioa igortzeaz gain, gizakiak giza harremanak garatzen ditu, emozioak adierazten ditu, espektatibak jakinarazi, balorazioak eman e.a. Komunikazioa ezinbesteko zaigu elkar ezagutzeko eta elkarri eragiteko, modu positiboan zein negatiboan.

Ahozkoa eta ez ahozkoa

Gizakiok komunikazio-modu ezberdinak erabiltzen ditugu, eta saillapen simple bat egiten badugu, komunikazio-moduak bitan sailka daitezke, ahozkoa eta ez ahozkoa. Bi moduak oso garrantzitsuak izaten dira gure bizitzan eta biak uztarturik joatea eta esanahi bera izatea komenigarria izaten da, entzuleak mezua ondo jaso dezan, hau da, ezin diogu haurrari maite dugula esan eta keinuz aurkakoa adierazi, bi komunikazio-moduek ez dute aurkakotasunik adierazi behar, ez dute paradoxa bat osatu behar, bestela haurra nahastu egingo baitugu. Gauza bera gertatzen da, hitzezko komunikazioaren atal ezberdinekin, hau da, hitz egiteko abiadurak, intonazioak, inflexioak eta abarrek bat etorri behar dute esan nahi dugunarekin.



Komunikazioaren bitartez giza harremanak garatzen ditugu eta zentzu honetan seme-alabekin komunikaziorako joera ireki eta aktiboa garatzea komenigarria da. Mintzairaren bitartez haurrak bere kanpo eta barne mundua adieraziko ditu, erlazioak interpretatzen ikasiko du, bere nortasuna eraikitzen joango da eta berak bizi duen errealtatetik gertuago egoten ahalbidetuko dugu. Beraz, mintzairari arreta jartzea garrantzitsua izango da.



Haurrek hizkuntza ikasteko berezko gaitasuna dute, edozein hizkuntza bada ere, baina gaitasun hori gara dadin baldintza batzuk beharrezkoak dira, komunikazioa erraztuko duten ingurua beharrezkoa da. Honela, haurra negar egite soiletik, hizkuntzarekin elkarreraginean zizakadura fasera igaroko da, fonemak bereiziz gero hitzak bereiztera, produktuzera eta azkenik, esaldien eta hizkuntzaren jabetzea lortuko du. Hau guztia modu egokian egiteko beharrezkoa izango du elkarrekintzako ingurua, testuinguru komunikatiboa eta hitz egiteko behar diren organoen garapen egokia.

Hizkuntzaren bereganatze prozesuan haurrari hiru testuinguru nagusiek eragingo diote, familiak, eskolak eta hortik kanporako erlazioek. Familiak, eta bertan gurasoek, paper erabakigarria jokatzen dute askotan prozesu honetan. Hezitzaileak izanik, gurasoen erantzukizuna izango da haurraren mintzaira eta komunikazio egokiaren garapenerako inguru eta baldintza aproposak ahalbidetzea. Haurraren eredu izango direlarik, komenigarria da, garbi hitz egitea, lasaitasunez, motibagarriak diren egoerak sortuz, entzuten ere jakitea eta honetan guztian interesa agertzea.

Etiket hasi behar da

Azpimarratu beharrezkoa da gaur egungo gizartearen abiadaz jabeturik, prozesu honi denbora eskaintzea guztiz beharrezko dela, eta denboraz eskas bagabiltza, sikiera kalitatezkoa izatea, behinik behin. Haurrak komunikazio egokia behar du izan garatzeko eta hau etiketik hasten da. Gurasoek eta hezitzaileek, orokorrean, denbora eskaini behar diegu haurrei, interesa adierazi beraien aktibitateen aurrean. Elkarreragina behar-beharrezkoa da haurraren garapen integral baterako zein familiaren zorionerako.

Elkarreraginaren bitartez gure haurren bizitzan hartuko dugu parte eta beraien gurean, ezin ditugu ahaztu, lanpeturik bagaude ere. Denboraren planifikazioa egin beharko dugu, gure haurren heziketan eta garapenean parte izan nahi badugu. Komenigarria da guztiz, haurraren hitz egitea egunero, denbora gutxi bada ere, taldeka nahiz bakaraka, beraien aktibitateengatik interesa agertzea, nolabait beraien interesa pizten digutela adieraztea. Komunikazio-

–dinamikak behin ezarriak, zail izaten dira aldatzea, eta zail izango da, beraz, haurra haur denetik daramagun dinamika nerabezaroan edo helduaroan aldatzea.

Komunikazioaren bitartez konfiantza lantzen dugu beste pertsonenganako zein geure buruarekiko, geure buruaren edo auto-irudiaren erreferentzia aldatzen edo indartzen dugu eta erlazio pertsonalak lantzen ditugu. Gurasoek haurrekin harremanetan honetan guztian hartzen dute parte, kontziente-

ki ez bada ere. Komunikazioa seme-alaba eta gurasoen arteko arrakastaren ardatza izaten da. Inportanteena ez baita soilik guraso langile eta arduratsu izatea eta guztia aurrera ateratzea, baizik eta beraien odolaren uztartzearen harantzagoko elkarketa ahalbidetuko duen harreman afektiboa eraikitzea.

Askotan nekatuak heltzen gara etxera eta ia ez daukagu seme-alabentzako denborarik, beraien lotara joateko ordua delako. Baina, bost minutu badira ere, haurrari galdetu behar diogu bere eguna zelakoa izan den, zerbait berria ikasi duen edota norbait berria ezagutu duen. Era natural batean egin behar dugu galdera. Ez dugu erantzuna behar-tu behar, baina bai elkarrizketa sortzen ahalegindu.

Haurrari egunez egun ohitura hori irakasten badiogu, hau da, gurekin komunikatzen irakasten badiogu, helduagoa denean, natural hartuko du seme-alaba eta guraso zein beste hezitzaileen arteko komunikazioa. Guraso askok nahi izaten dute, 12 urteko seme edo alabak asteburuan egin duena kontatzea. Baina, alferrik ariko dira txikitatik natural komunikatzen irakatsi ez badiote; oso zaila izango da beren erantzun naturala, hau da, egiatzkoa lortzea.

Ipuinak tresna egokiak dira

Komunikazioa arrakastatsua izan dadin garrantzitsua da guztiz, mezuaren hartzaileak mezua ulertzea. Eta horretarako gurasoa haurraren hitz egiten ari denean, bere mundura egokitu beharko du, enpatia azaldu eta haurraren gaitasuna hurbildu. Zentzu honetan, ipuinak oso komunikazio-tresna erabilgarriak izan daitezke eta haurrari egoera, eduki eta balio ezberdinak ager diezazkiekegu berak ulertzeko moduan, hainbat gauza erakutsiz eta, bide batez, jolas eginez. Ipuinak irakurtzeko ohiturarekin eduki anitz azaltzeaz gain, haurraren erlazio efektiboa ere garatzen dugu. ■

Hori dela eta, hurrengo lerrootan, IPUINA SAILEAN, guraso eta haurren arteko komunikazioaren garrantzia azpimarratu nahian, 6-8 urte bitarteko haurrentzako ipuina duzue.